

## Filosofia

1. Giorgio Agamben, *La potencia del pensamiento*. Barcelona: Anagrama, 2008, 424 or.

Giorgio Agamben filosofo italiarrak 1980tik 2005era bitarteko urteetan mol-datutako 21 saiakerak osatzen dute li-burua, horietako batzuk lehendik argita-ratuak baina gaur egun nekez aurki daitezkeen hainbat aldizkaritan eta argi-taragabeak bestek. Liburuari saiakera ho-rietako baten izena eman zaio. Liburu honetaz esan daiteke harrigarria dela ber-tan sarritan aurkitzen dituzun ideia berri eta zorrotzengatik, baina baita zaila dela laburtzen ere. Filosofia klasikoan eta filo-logian ongi jantzia egoteak aukera ema-ten dio Agambeni filosofia, historia, poli-tika nahiz kritikaren arloko auzi modernoen ganean maisutasunez ari-tzeko. Testu hauetan begiz begi begiratu eta eztabaidan ari da tradizioko pentsalari handi askorekin, hala nola: Platon, Aris-toteles, Spinoza, Hegel, Aby Warburg, Carl Schmitt, Heidegger, Benjamin, De-leuze, Derrida. Hiru ataletan banatuak datoz saiakerak; honako hauetan: Hizkun-tza, Historia, Potentzia. Saiakera guztiak, ordea, kontzeptu nagusi bati buruzko ba-riazioak direla esan daiteke; kontzeptu hori potentzia da. Honela hasten da *La potencia del pensamiento* izeneko saiakera: Mendebaldeko filosofian, potentziaren kontzeptuak historia luzea du eta, Aristote-lesez geroztik gutxienez, leku nagusia dagokio. Aristotelesen potentzia (*dýnamis*) aktoari (*enérgeia*) kontra-jartzen dio –eta lotzen aldi berean–. Wittgensteinen arabera, dio Agambenek, problema filo-sofikoak argiago bihurtzen omen dira hi-

tzen esanahiari buruzko galdera moduan birformulatzen badira. Bada, Agambenek uste du bere ikerketaren gaia “nik ahal dut” sintagmaren esanahia ulertzeko aha-legin bat dela. Zer esan nahi dugu “Nik ahal dut” edo “Nik ezin dut” esatean? Era horretan, hizkuntzari potentziaren ikus-pegitik heltzean, Agamben ez da hizkun-tzaz hizkuntzalari gisa ari, filosofoa den aldetik baizik. Eta galdera gisa honetakoa izango da: “Nola ulertu hizkuntza deitzen dugun gertakari hori?”. Edo galdera zeha-tzago hauek: “Zer esan dezakezu?”, “Esan dezakezu hori?”. Agambenek esaten digu-nez, gizakia da animalia bakarra bere inpotentzia potentzia bihurtzeko ahala duena; gainerako bizidunek ezin dute gauzatu beren potentzia espezifikoa bai-zik. Liburu hiru ataletan banatua dago-ela esan dugu, baina kontuan hartzekoa da lanak zein ataletan sartu erabaki-tzerakoan malgutasun handia erakutsi duela autoreak. Horrela, Historia izene-koan, honako gai hauei buruzko saiake-rak daude: Aby Warburg eta izenik gabe-ko zientzia, giza tradizioa eta hizkuntzak hor duen zerikusia, Hegelen Absolutua eta Heideggerren ‘Ereignis’ delakoa, Wal-ter Benjamin eta demoniozkoa dena, eta abar. Liburu hau ikerketa sail bat den al-detik irakur daiteke, edo, nahiago bada, metodoari buruzko laburpen bat den al-detik. Nolanahi ere, filosofo on baten li-buru bikain bat irakurriko da.

*Pello Huizi*

2. John Skorupski, *Why Read Mill Today?* London: Routledge, 2006, xiii + 121 or.

Skorupski, Eskoziako St. Andrews Unibertsitateko Filosofia Moraleko katedraduna, John Stuart Millen filosofian aditu oso ezaguna da. Ia hogeitaz bete dira liburu mardula argitarara eman zuenetik Milli buruz. Duela hamar urte berriz *The Cambridge Companion to John Stuart Mill* liburuaren argitarazaila izen zen, logikari eta filosofo utilitarista bereziari buruz kontsulta liburu obligatua bihurtu dena. Oraingo liburu hau laburpen modukoa da, filosofiako eta gizarte zientzietako ikasleentzat era erraz eta egoki batez idatzia. Liburuak bost kapitulu ditu. Lehenbizikoan sartu aurretik, Millen bizitzaren kronologia labur bat eskaintzen da eta baita aipua egiteko erabili diren iturrien aurkezpena ere. Lehen kapitulua Millen liberalismo filosofikoari buruzkoa da, pentsamendu librea nola oinarritzen den azalduz. Irakurtzerakoan gogora datorkigu Isaiah Berlinen *Four Essays on Liberty*, 1969an argitaratua eta bertan Mi-

lli buruzko kapitulua, 'askatasun negatiboa' defendituz. Bigarren kapitulua Millen etikari buruzkoa da, *Utilitarianism* liburuan azaldu zuena, utilitarismoaren ortodoxiatik ihes egin eta moralitatea justiziarekin lotzen saiatu zenekoa. Hirugarren kapitulua askatasunari buruzkoa da, hau da, libertatei buruzkoa. Ongi azaltzen da Millen liberalismo politikoaren mugak zein izan ziren. Laugarren kapituluan Mill modernitatearen pentsalari gisa azaltzen zaigu, positibismoaren eragina aipatuz eta Marxen pentsaerarekin alderatuz. Azken kapituluan Milli buruzko gogoeta berezia egiten du Skorupskik, bereziki gaur egungo liberalismoarekin konparatuz. Liburuan apenas aipatzen da Mill logikariaren edo ekonomilari politikoaren lana. Bibliografia laburra da eta indize oso ona du liburuak.

Jesus M. Larrazabal

## Gizarte filosofia

---

3. Noam Chomsky, *Sobre el anarquismo*. Iruñea: Laetoli, 2008, 239 or.

Askatasunaren ikuspegi positiboa dauka Chomskyk eta bere filoanarkismoa harrigarria suertatzen zaio askori. Indibiduoaren ahalmen guztiak garatu eta askatuko dituen gizarte bat amesten du eta "askatasun sena", oraindik frogatzeke dagoela aitortzen duen arren, giza izaeraren muinean dagoela uste du. Doktrina liberal klasikoa berreskuratu nahi du, edozein autoritatek gu manipulatzeko eskubidea aldarrikatzen duenean inongo legitimitaterik ez duela gogorarazteko.

Hasieran, Daniel Guérinen obra batentzat 1970ean egin zuen aitzinsolas

bat biltzen du liburu honek, anarkismoari buruzko ohar historiko eta filosofiko labur baina ilustragarri bat osatuz. Rudolf Rocker anarkismoaren historialariaren lanetik abiatuta Parisko komuna, anarko-sindikalismoa, Marx eta Bakunin ditu aipagai eta, interesgarriki, Espainiako gerra zibilean, Katalunian-eta, eratu ziren herri antolakuntza espontaneoak ere bai, sozialismo libertarioaren ereduak, bere usuez. 5. atal bikainean Glasgown eman zuen hitzaldi bat biltzen da, *demokraziazaren mehatxua* deritzona aztergai duena. Hauxe da hasieran egiten duen galdera,

Humen paradoxa aintzat hartuta: gobernatuek zergatik onartzen dute batzuen aginte pean egotea gehiengo zabala izanik indarra sobran euren aldekoa bada? Sistemaren doktrinamenduaz historikoki egiten duen azterketa eta, bereziki, ipintzen dituen adibideak (Panama, Haiti...) ez ahazteko modukoak dira. Liburuko

beste zenbait ataletan Chomskyri anarkismoaz eginiko elkarrizketak agertzen dira, galdera baino erantzun hobeagoekin. Kontuan izan, liburu honek irekitako bideari segitu nahi izanez gero, helbide ezinbesteko hau: [www.chomsky.info](http://www.chomsky.info).

*Alain Ulazia*

#### 4. Raimo Tuomela, *The Philosophy of Sociality. The Shared Point of View*. Oxford: Oxford University Press, 2007, 318 or. (DZ)

Ongi ezagunak dira Institutuan Raimo Tuomela filosofoa eta bere ikuspegi eta teoriak ekintza sozialari eta ontologia sozialari buruz. Horregatik batzuei ezagunak egingo zaizkigu liburu honetan aurkezten dizkigun lanetako batzuk. Hamar dira kapituluak eta lanak, artikuluen bilduma bat baita Filosofia Sozialari buruzko liburu hau. Izenburuak zehazten duen moduan, aurkezten zaigun ikuspegia ikuspegi konpartitua, partekatuarena da, Tuomelaren filosofian ohikoa den ikuspegia bestalde. Esan bezala, aurkezten zaizkigun lanetako askok aurrez argitaratuak izan dira, eta Tuomelaren filosofian klasikotzat jo daitezken kontzeptuei buruzkoak dira: taldekidetasuna edo taldekide moduan eginiko ekintza; ekintza moduak: gu-modua eta ni-modua, talde ekintzak eta talde jarrerak; gu-asmoa eta

baterako asmoa; baterako ekintza soziala; partekatutako gu-jarrerak eta kooperazioa. Hau da, Tuomelak urteetan aztertu eta argitu nahi izan dituen kontzeptu 'pluralak'. Berrikuntzak azkeneko hiru kapituluetan datoz. Urrats berria emanik, instituzio sozialei kapitulu bat eskaintzen die, kulturari eta etikari ateak zabaltzeko. Jarduera sozial kooperatiboaren eboluzio kulturala. Talde-erantzukizunaz arituko zaigu bukatzeko, erantzukizun normatiboa aztertu eta argitu nahi duelarik. Horretarako asमितुको du taldekideek badutela ethosa sustatzeko talde-betebeharra. Oin-oharrak, oparoak, bukaeran azaltzen dira eta erreferentziak ondoren. Interesgarria eta zabala gaien indizea, non kontzeptu eta termino tekniko gehienak dauden.

*Xabier Arrazola*

## Zientziaren filosofia

---

#### 5. Bernad D'Espagnat (2003), *Veiled Reality: An Analysis of Present-Day Quantum Mechanical Concepts*. Colorado: Westview Press, 494 or.

Poliki irakurri beharreko liburuak da hau. D'Espagnaten aurreko liburuak ez bezala, xeheki ataldua eta zorrotz sailkatua dago, hain kontzeptu zailak ulertzea asko errazten duen gida moduko bat eskainiz. Gisa honetan, mekanika kuantikoaren

formalismo matematikoei, oinarritzat nahiz adibide eredugarritzat, egokiera onak topatzen dizkie euren adierari amas emanez. Honelako lanak dira, hain zuzen ere, teoria kuantikoari eta honen fundamentuei buruzko kurtsoetan ezinbesteko

osagarri gisa agertu beharko liratekeenak, eta, tamalez, inguruan sekula ez ditugunak.

Filosofoentzat maiz arrotzak dira mekanika kuantikoaren formulazioak eta honen errotiko inplikazio epistemologikoak. Inplikazio horien garrantzia, egungo teoria fisiko arrakastatsuenaren gain eraikitzen diren heinean, hainbat gogoetalarik erabat gutxienesten dutelakoan nago. Esan bestela pragmatista bati *zientzia* kuantikoak deskribatzen duena ez dela gogoarekiko independentea den errealitate bat. Ezin ditugu kolorezko betaurreko biologikoak kendu, errealitatea halabeharrez dago *veiled*,

ehunpean, ordena inplizitu batean. Bada, hauxe da liburuaren muina. Lehenengo kapitulua, *Philosophy and Physics*, funtsezkoa da muin horri helduta mekanika kuantikoaren formalismoetan zehar irakurraldia hasi eta teoria honen estruktura gotorraz eta indar epistemikoaz jabetzeko. Beste era batera esanda: “munduaren ideia bat eratu nahi duen edonork fisika kuantikoaren aurkikuntzak serioago hartu behar ditu kontuan. Ez digute axola behar teknikotasun zientifikoaren zailtasunak eta beharrezkotasunak”.

Alain Ulazia

6. Robert W. Batterman, *The Devil in the Details: Asymptotic Reasoning in Explanation, Reduction, and Emergence*. New York: Oxford University Press, 2002, 144 or.

Egungo zientziari buruzko azterketa filosofiko aunitzek hainbat detaile interesgarri bazter lagatzen dituzte. Ñabarduren argitan, fenomeno fisiko mota zabal baten azalpenean erabili ohi den arrazonamendu mota bat du aztergai liburu motz bezain zorrotz honek. Jarduera zientifikoaren baitan berariaz gauzatzen den arrazonamendu mota bat da, eta ez arrazonamendu zientifikoaren berreraikuntza arrazional zaharkitu bat, aitzin-uste eta programa filosofiko arrotzen menpekkoa. “Arrazonamendu asintotikoa” deitzen dio Battermanek eta fenomeno fisiko konkretuen hainbat alderdi ulertzeko zeinen beharrezkoa den erakutsiko du.

Izan ere, badago ideia orokortu bat ulermen zientifikoak detailea eta, nolabait, zehaztasuna eliminatzen duten metodoak behar dituela dioena. Zein fenomeno mota, zein mugalde-baldintzaren pean, eta zein ekuaziok gobernatuta esplikatzeko dituzte teoria fisiko batek? Horra hor behar den zehaztasun guztia. Noski, ñabardurak beharrezkoak dira jarraibide fisiko bat zergatik azaleratzen den jakite-

ko, baina detaileok oztopatu egiten dute jarraibide hori zergatik existitzen den ulertzea. Makina bat dira adibideak termodinamikako fase trantsizioetan eta fenomeno kritikoetan. Oinarrian hain desberdinak diruditen jariakinak edo magnetoak bezalako sistemek egoera kritiko zenbaitzuetan portaera bera erakusten dute. Sistema bat eta bestea desberdintzen dituzten hainbat eta hainbat detaile irrelebanteak dira intereseko portaera aztertzean, maila altuko propietateak eta horiek sortzen dituzten orokortzeak unibertsalak bailiran. Zati/osotasunaren termino mereologikoak garrantzi gabekotzat tratatutako ditu Battermanek oinarriko detaileen emergentzia edo azaleratze honen ikerketan. Proposamen hau bezain ederrak dira aukeraturiko kasu azterketak: liburuaren tapakian agertzen diren urpeko argiaren azalera kaustikoak dira horren adibide, argiaren uhin teoriaren eta izpi teoriaren mugan jaiotzen den katastrofe optikaren magalean.

Alain Ulazia

7. Terence Tao, *Solving mathematical problems*. New York: Oxford University Press, 2006, x + 103 or.

2006ko Fields Dominaren irabazleak liburu entretinagarri bezain interesgarria dakarkigu. 15 urterekin idatzi zuen testu hau, hainbat olinpiada matematikotan garaile izan ohi zen edadean. Egileak aitortzen du orain problema-ebazpenari buruzko liburu bat idatzi behar balu arrunt modu diferentean egingo lukeela; hala ere, emaitza konplexuenak eta zailenak muinean ideia oso sinpleek gidatzen dituztela ohartzeak bere garaian nola liluratu zuen erakusteari garrantzitsua deritzo Taok.

Lehenengo atal orokorra oso interesgarria da, problema-ebazpenerako estrategiez modu ulerterraz bezain iradokigarrian diharduelako. Hurrengo ataletan etsenpluak datoz, norberaren burua estutzeko ariketa ederrekin eta hauek ebazte-

ko bideekin: zenbaki teoria, algebra eta analisia, eta nola ez, geometria euklidearra eta analitikoak kreatiboki birgogortzeko aukera ematen dute atalok. Azken atalak, esparru jakin batean geratu beharrean, askotariko buruketak dakartza. Hauetan gehien gustatu zaidanarekin eta arrazonamendu analogikoaren garrantzia erakusten duenarekin lagako zaituztet: "Suposatu irla batean 13 kameleoi gris, 15 marroi eta 17 gorri daudela. Kolore desberdineko bi kameleoi elkartzen badira, hirugarren kolorea hartzen dute biek. Hau da piztiok kolorea aldatzen duten une bakararra. Posible al da kameleoi guztiek kolore bera izango duten une batera iristea?"

Alain Ulazia

## Hizkuntzaren filosofia

---

8. Eros Corazza, *Reflecting the Mind. Indexicality and Quasi-Indexicality*. Oxford: Oxford University Press, 2004, xiv + 368 or.

Indexikalitateak, zioen Bar-Hillelek, gure hizkuntzen %90 harrapatzen du, baina testuinguruaren mendeko hitzik baldin badago, indexikoena da kasurik argiena: izenordainak ('ni', 'hi', 'zu'...), erakusleak ('hau', 'hori', 'hura'...) denbora eta toki adizlagunak ('orain', 'bihar', 'hemen', 'hor'...) dira indexikoen eredu. Hitz horiek ez dira anbiguoak, esanahi bakarra dute, baina beren erreferentzia aldakorra dute testuinguruz testuinguru. Horien esanahia 'esaldiaren esalea', 'esaldiaren denbora' eta 'esaldiaren tokia' deskripzioen eta antzekoen bidez eman daiteke, baina deskripzio horiek ezin dute bete indexikoek duten funtzio berezia. Indexikoek hizkuntzan

eta gogoan duten zeregin berezia aztertzea da Corazzaren helburua liburu honetan. Eta, indexikoen artean, 'ni' izenordainaren erabileraren eta erabilera horien berri emateko darabiltzagun 'kuasi-indexikoena' bereziki. Bederatzi kapitulutan erreferentzia egiteko erabiltzen ditugun gainontzeko adierazpenekin alderatzen ditu indexikoak; horien artean erakusleak, indexiko hutsak eta indexiko esentzialak bereizten ditu; 'ni' izenordainak norberaren perspektibarekin daukan harreman estua arakutzen du; anafora, logofora eta kuasi-indexikalitatea aztertzen ditu eta *de re*, *de dicto* eta *de se* berri emateak azaltzen ditu, eta beste hainbat gauza. Corazzaren ildoak Ka-

plan, Castañeda eta Perryk irekitakoa jarraitzen du, eta erreferentzia ezinbestekoa bihurtu da indexikalitateari buruz

hizkuntzaren eta gogoaren filosofian eginko azken garaiotako bidean.

*Kepa Korta*

9. Scott Soames, *Reference and Description. The Case against Two-Dimensionalism*. Princeton: Princeton University Press, 2005, xii + 359 or.

Kaplanek, Kripkek, Donnellanek, Perryk eta bestek bultzatutako erreferentzia zuzenaren teoriak Fregeren deskriptibismoaren kontrako argudio zorrotzak ekarri zituen eta honako hauek bezalako tesi onarpena zabaldu: i) izen propioek ez dute esanahi deskriptiborik; indexikoek bai, baina designatutako objektua da esaldien egibaldintzei edo adierazitako proposizioari egiten dioten ekarpena; ii) izenak eta indexikoak designatzaile zurrunk dira; beraz, horien bidez egindako identitate baiezenak, egiazkoak badira, beharrezkoak dira; iii) beharrezkotasuna eta *a priori* ezagutza maila ezberdinetako kontuak dira, ontologikoa bata, epistemologikoa bestea, eta ez doaz beti batera. Jakina da, hala ere, tesi horien eta beste batzuen kontrako argudioak emanak zituela Fregek berak hirurogeita hamar bat urte lehenago. Ez da harritzekoa, beraz, erreferentzia zuzenaren teoriaren kontrako argudioak gerora ere berpiztea. Horrela ikusten du, hain zuzen ere, 'bi dimentsiotako' semantikaren proiektua Soamesek: deskriptibis-

moaren defentsaren bertsio berri bat erreferentzia zuzenaren ikuspegiaren kontra. Lau zatitan banatzen du Soamesek liburua. Lehenengo zatian, erreferentzia zuzenaren teoriak eragindako errebolta azaltzen du, besteak beste, goiko hiru tesi horiek deskriptibismoaren kontra duten indarra aztertuz. Bigarren zatian, bi-dimentsionalismoa aurkezten du deskriptibismoaren erresistentzia modu gisa, eta Kaplanen, Kripkeren eta Stalnakerren lanetan dituen erroak arakatu eta Davies eta Humberstonen proposamena aurkezten du. Hirugarren zatian, bi-dimentsionalismoaren proposamen bi aztertzen ditu eta laugarren zatian horien aurkako bere argudioak ematen ditu Soamesek. Izan ere, bi-dimentsionalismoa alde batera utzi eta antideskriptibismoari eustea da bere proposamena. Soames hizkuntzaren filosofiko eta filosofia analitikoko autore nagusietakoa dugu gaur egun, eta liburu hau eztabaidaren erdian kokatzeko itxura guztiak dauzka.

*Kepa Korta*

## Hizkuntzalaritza

---

10. Jeanette Altarriba & Roberto R. Heredia (arg.), *An introduction to bilingualism: principles and processes*. New York: Lawrence Erlbaum Associates, 2008, xx + 388 or.

Testu-liburu garrantzitsu honen helburua elebitasunarekin zerikusia duten alderdi guztiak mahai gainera ateratzea

da. Alderdi horiek dira alderdi soziala, kulturala, kognitiboa, biologikoa, psikologikoa eta linguistikoa, baita hezkun-

tzaren eta garapenaren alderdiak ere. Bost atal ditu liburua. Lehenbizikoak “Introduction: Theoretical and methodological background” du izenburua eta gai hauek ditu aztergai: elebidunak informazioa nola prozesatzen duen ikertzeko erabili ohi diren metodoak, batetik, eta oroimen elebidunaren azterketak historian zehar izan dituen garapenak, bestetik. Bigarren atalak (“Cognitive and neurological mechanisms”) elebitasunaren alderdi psikolinguistikoei buruzko datu eta aurkikuntzen berri ematen du: nola eragiten dio hizkuntzak jokabideari?, nola argitzen dute jokabideek hizkuntzaren prozesatzea? Beste kontu bat atal honetan aztertzen dena da nola eragiten dion elebitasunari zahartze prozesuak. Bi kapitulak osatzen dute hurrengo atala, izenburu hau duena: “Creativity and developmental principles”. Aurreneko kapituluak elebitasunaren eta sormenaren arteko harremanak eta bigarrenaren elebitasunaren eta hizkuntzaren garapen kognitiboaren

artekoak aztertzen dira. Laugarren atalean (“Social and sociocultural processes”) arreta ipintzen da elebitasunaren alderdi sozial eta kulturetan: testuinguru sozialaren eragina, identitate sozialarena, kulturarena, elebitasuna eta jarre-ak, eta abar. Azkenik, bosgarren atala honako gai hauei dago eskainia: elebitasunari hizkuntzalaritzatik egin zaizkion ekarpenak, bigarren hizkuntza baten ikaskuntza eta elebitasuna, hezkuntza sustatu diren printzipio eta politika berrien eraginez elebitasunak orain gizartean duen estatusa. Testu-liburu hau pentsatua dago *Elebitasunaren psikologia* eta *Bigarren hizkuntzaz jabetzea* izeneko graduatu aurreko ikastaro eta mintegietan erabiltzeko, baita psikolinguistikako graduatu ondoko ikastaroetan erabiltzeko ere, batez ere elebitasuna eta bigarren hizkuntza ikastea azpimarratzen dutenetan.

Pello Huizi

11. Monica Gonzalez-Marquez, Irene Mittelberg, Seana Coulson & Michael J. Spivey (arg.), *Methods in Cognitive Linguistics*, Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins, 2006, xxviii + 452 or.

Liburu honen abiapuntua 2003an Cornell Unibertsitatean, New Yorken, egin zen “Empirical Methods in Cognitive Linguistics” izeneko lehen *workshop* edo lantegia da. Hizkuntzalaritza kognitiboa 1970eko hamarkadan agertu zen artean hizkuntzalaritzan nagusi zen paradigma sortzailearen kontrako erreakzio moduan. Korrante edo eskola honen arabera, gogamenean ez dago hizkuntzafakultate autonomorik eta hizkuntzaren ezagutza hizkuntzaren erabileratik dator. Hizkuntzalaritza kognitiboak urte franko ditu dagoeneko, baina ezin da esan tradizio luzea duenik. Horregatik, ez da harrizkoa hizkuntzalaritzaren arloan

ohikoak ziren metodoak erabiltzea. Arestian aipatu den *workshop*-aren helburua zen beste metodologia osagarri batzuen erabilera bultzatzea hizkuntzalaritza kognitiboaren arloan. Izan ere, gero eta sinetsiago daude arlo honetako iker-tzaileak teoria linguistikoak honako oinarri hauek behar dituela: hizkuntzaren erabileraren behaketa, horren baliozko-tasunaren proba esperimentalak eta funtzio kognitiboaren ezagutza orokorra. “Hizkuntzalaritza Kognitiboko Metodo Enpirikoak” izendatu dituzten *workshop*-ei ezarri zaien egitekoa da zubiarena egitea lan teorikoaren eta lan enpirikoaren artean. Hemen aurkezten den liburua

bost atalez osatua dago. Hona atalen ize-  
nak eta, parentesi artean, horietako  
bakoitzean lantzen diren gaiak: 1) “Me-  
todoak eta motibazioak” (zergatik duten  
hizkuntzalari kognitiboek gehiago ardu-  
ratu behar metodo enpirikoez, nola lan  
egin behar den hizkuntzaren erabilerari  
buruzko datuekin, laborategiko metodo-  
logiaren printzipio orokorrak, estatistika  
inferentziala); 2) “Corpusaren eta diskur-  
tsoaren analisia” (diskurtsoaren analisi  
konplexua egiteko bide enpirikoak, cor-  
pusean oinarritutako hizkuntzalaritza  
kognitiboa); 3) “Keinu hizkuntza eta kei-  
nuak” (metodo enpirikoak keinu-hizkun-  
tzaren ikerketan, keinuak eta hizketa  
nerbio-pakete bakarrean sartzen direlako  
ebidentzia, hizketaren eta keinuen da-

tuekin lan egiteko era); 4) “Jokabide-es-  
perimentuak” (hizkuntza eta espazioa,  
simulazio-semantika, hizkuntzaren buru-  
irudikapena, begien mugimenduak, hitz  
gabeko haurren ezagutza eta abar iker-  
tzeko dauden metodo esperimentalak);  
eta 5) “Azterbide neuralak” (gertakariei  
loturiko garun-potentzialei buruzko da-  
tuak, printzipio konputazional oro-  
korrak). Beharbada ez da gehiegi esatea  
izango liburu hau ezinbestekoa dela  
hizkuntza eta kognizioa lantzen ari di-  
ren ikertzaileentzat. Oso egokia da, bes-  
talde, hizkuntzalaritza kognitiboaren ar-  
loan lanean ari diren adituen berri  
jakiteko ere.

*Pello Huizi*

12. Emma Borg, *Minimal Semantics*. Oxford: Oxford University Press, 2004,  
288 or.

Pragmatikaren azken urteotako  
arrakastak alor horrek semantikarekin  
(bereziki semantika formalarekin) duen  
harremanari buruzko eztabaida interes-  
garri bezain sutsua eragin du hizkun-  
tzalari eta filosofoen artean. Auzi horren  
inguruan bi mutur bereizi dira: kontes-  
tualistak, batetik, eta minimalista edo  
literalistak, bestetik. Kontestualistek esa-  
nahiak testuinguruarekiko duen mende-  
kotasuna azpimarratu dute, eta, horrela,  
semantika formalaren egitekoa zalantzan  
jarri dute, minimalisten ustez. Horrega-  
tik, minimalistek semantikaren defentsa  
egin beharra sumatu dute pragmatikaren  
‘inbasioaren’ aurrean. Horixe da Emma  
Borgen xedea ere liburu honetan: kontes-  
tualistek semantikari egin dizkioten  
mehatxuak aztertzea eta horien aurrean  
semantikak eta pragmatikak duten lekua

argitzen saiatzea. Eta argi, serio eta  
txukun egiten du Borgek bere lana; ezta-  
baida honetan batzuetan erabili diren  
modu arin, zakar eta probokatzaileetatik  
ihesi. Semantika formala eta modularita-  
tea aztertzen ditu, testuinguruarekiko  
mendekotasuna eta indexikalitatea, eta  
kontestualismoaren argudio nagusiak ere  
bai (hala nola, artikulatugabeko osagaien  
auzia, eduki semantikoaren indetermina-  
zioa eta egibaliarik eza). Bukatzeko, azal-  
tzen du semantikaren ikuspegi minima-  
lista, hizkuntz esanahiaren eskema  
orokorrean, nola etortzen den bat prag-  
matikarekin. Minimalismoaren berri  
modu lasaian izan nahi duenarentzat  
irakurri beharreko liburua da Borgen *Minimal Semantics*.

*Kepa Korta*



13. Ernest Lepore eta Barry C. Smith (arg.), *The Oxford Handbook of Philosophy of Language*. Oxford: Oxford University Press, 2006, xvi + 1083 or.

Hizkuntzaren filosofiaren gaurko egoeraren erakusgarri ona da Leporrek eta Smithek atondu duten liburu mardul hau. Hizkuntzaren filosofia XX. mendeko alor filosofikorik emankorrenetakoa izan da, baina argitaratzaileek dioten bezala, ez dago lan ugari hizkuntzaren filosofiako ikerketa zertan den kanpotik eza-gutu nahi duenarentzat pentsatuta. 'Klasiko' batzuen irakurketa aholkatzen zaio etorri berriari –Frege, Russell, Kripke, Kaplan, Perry, Austin, Grice...–, baina horiek filosofo espezialituentzat idatziak daude, eta ez da erraza izaten horien bidez alorraren oinarrien berri izatea. Liburuan bildu dituzten artikulua, hala ere, ez daude sarrera moduan idatzita. Alorrean garrantzitsuak diren egileek beren lanaren berri ematen dute, hori bai, modurik zabal eta irakurgarrienean. Jasotzen diren 41 artikulua zortzi ataletan sailkatu dituzte: hasteko, hizkuntzaren filosofiaren gaur arteko historia hartzen da ardatz. Bigarren eta hirugarrenean, hizkuntzaren eta esanahiaren izaera da gai nagusia. Laugarrenean, erreferen-

tziaren auzia da eztabaidagaia eta bosgarrenean hainbat teoria semantiko-ren azalpena, hala nola, semantika formala eta bi dimentsiotako semantika. Seigarren atalean, hizkuntzaren filosofiako hainbat gai osatzen duten fenomeno batzuk: konposizionalitatea, denbora, kuantifikatzaileak eta forma logikoa, esate baterako. Zapigarren atala adierazpen esaldiak ez diren hizketa ekintzei buruzkoa da. Eta azkenik, zortzigarren atala hizkuntzaren epistemologia eta metafisika auziei dago eskainia. Azken honetan nabarmentzekoa da Donald Davidson zenaren artikulua: *"The Perils and Pleasures of Interpretation"* ("Interpretazioaren arrisku eta plazerak"). Leporek eta Smithek hitzaurrean dioten bezala, liburu honetan, hizkuntzaren filosofia zer den ez da bertan esaten, baina erakutsi erakusten du gaur egiten ari denaren zati handi bat. Blackwellen *Handbook*arekin batera, hizkuntzaren filosofiako esku-liburu mardula bezain aberatsa da.

*Kepa Korta*

